

OSAKIDETZAK SINADURA BIOMETRIKOAREN SISTEMA EZARRI DU ETA HORREN BIDEZ 11.901 BAIMEN INFORMATU SINATU DITUZTE PAZIENTEEK

Gailu digitalean eskuz egindako sinadura edukitzeko sistema hau **urtarrilean jarri zen abian** Osakidetza osasun-elkarte guztietan eta **eraginkortasun eta segurtasun** handiagoa ematen die pazienteen sinadura behar duten osasun-dokumentuei, baimen informatuari, esaterako.

Guztira, Osakidetzaren **11.901 baimen informatu sinatu dira sinadura biometrikoaren bitartez**, historia kliniko digitalaren baitan; sistema hori 2018ko urtarrilean ezarri zen Osakidetzako osasun-elkarte guztietan. Sistemak sinadura modu seguruan jasotzen du, ebidentzia biometrikoak bilduta (posizioa, abiadura, presio-azelerazioa eta lapitzaren makurdura). Hala, sinadura sinatutako dokumentuari baino ez dago lotuta.

María Jesús Múgica Osakidetzako zuzendari nagusiak adierazi moduan, sinadura biometrikoaren sistemak segurtasun eta eraginkortasun handiagoa ematen dio baimen informatuaren tratamenduari, pazientearen sinadura behar baitu; **sinatzailearen nortasuna eta dokumentuaren baliozkotasuna ziurtatzen ditu, baita horren pribatutasuna ere.**

Orain artean, dokumentu horien izapideak egiterakoan, dokumentuak inprimatu, sinatu eta ondoren digitalizatu edo fisikoki biltegitratzea eskatzen zuen, eta horrek administrazio-baliabideetan arazoak sortzen ditu; dokumentua galdu edo kaltetzeko arriskua, kontrolatzeko zaila, fitxategi fisikoak, etab.

Orain, Osakidetzan, arrisku horiek desagertu egingo dira kudeaketa osoa txertatzean, eta alderdi horiek nabarmen hobetuko dira baimen informatuan; egingo zaion prozeduraren inguruko informazioa bildu eta ziurtatzen zaio pazienteari, baita horren baimena jaso ere. Baimen informatuak osasun-profesionalaren sinadura elektronikoa eta pazientearen biometrikoa biltzen ditu, eta ezinbesteko baldintza izango da behar bezala beteta eta informatuta egotea aipatu prozedura egin ahal izateko.

Maria Jesús Múgicaren hitzetan, Osakidetzak urrats berria eman du teknologia berrien ezarpenean, **pazienteei kalitate handiagoko arreta eskaintzea helburu**. Ildo horretan kokatzen da **Osasun Sailaren eta Osakidetzaren** pertsonen osasunaren aldeko **teknologia berrietan inbertitzeko apustua**.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 3an

OSAKIDETZA IMPLANTA EL SISTEMA DE FIRMA BIOMÉTRICA A TRAVÉS DEL CUAL LOS Y LAS PACIENTES HAN FIRMADO YA 11.901 CONSENTIMIENTOS INFORMADOS

Este sistema de firma manuscrita en un dispositivo digital, **se ha implantado en enero** en todas las organizaciones sanitarias de Osakidetza y ofrece **mayor eficacia y seguridad** en los documentos sanitarios que requieren firma del paciente como es el consentimiento informado

Un total de **11.901 consentimientos informados de Osakidetza se han firmado a través de la firma biométrica**, integrada en la historia clínica digital, tras la implantación de este sistema en todas las organizaciones sanitarias de Osakidetza en enero de este año. El sistema, recoge la firma de manera segura a través de la recogida de evidencias biométricas (posición, velocidad, aceleración presión e inclinación del lápiz). De este modo, la firma queda vinculada exclusivamente al documento firmado.

Tal y como ha destacado **la directora general de Osakidetza, María Jesús Múgica**, la firma biométrica es un sistema que **ofrece mayor seguridad y eficacia** en el tratamiento del consentimiento informado, que requiere la firma del paciente, **asegurando la autoría del firmante, la validez del documento así como la privacidad del mismo**.

Hasta ahora, la tramitación de este tipo de documento requería, la impresión, firmado y posterior digitalización o almacenamiento físico con los inconvenientes de dedicación de recursos administrativos; riesgo de extravío o deterioro, difícil control, archivos físicos...etc.

Ahora, en Osakidetza, estos riesgos se eliminan al incorporar la gestión completa y se mejoran notablemente estos aspectos en el consentimiento informado, que recogen y aseguran la información al paciente sobre el procedimiento que se le realizará, así como la autorización al mismo. El consentimiento Informado incorpora la firma electrónica del profesional sanitario y la biométrica del paciente y será condición indispensable que esté debidamente cumplimentado e informado para la realización de dicho procedimiento.

En palabras de María Jesús Múgica, Osakidetza da un nuevo paso en la implantación de nuevas tecnologías **con el objetivo de ofrecer mayor calidad en la atención a los y las pacientes**. En este sentido se sitúa **la apuesta del Departamento de salud y Osakidetza por la inversión en nueva tecnología a favor de la salud de las personas**.

Vitoria-Gasteiz, 3 de marzo de 2018